



EKONOMIA ZIRKULARRA ERAIKUNTZAREN SEKTOREAN

Jardunbide egokiak
birziklatutako materialen
erabileran obra
zibilean Euskadin

© **Ihobe SA, 2019ko urtarrila**

Argitaratzailea: Ihobe, ingurumen-kudeaketarako sozietate publikoa
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
Eusko Jaurlaritza

Urkixo zumarkalea, 36, 6. solairua
48011 Bilbo
info@ihobe.eus
www.ingurumena.eus
www.ihobe.eus

Maketazioa: La Trastienda Creativa

SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko Sailburuordetzak eta Ihobe bere sozietate publikoak ibilbide luzea dute birziklatutako kalitatezko materialen erabileraren sustapenean, ingurumen-eragin txikia duen ekonomia ekofizientea lortzeko.

Eraikuntzaren eta eraikitze iraunkorraren esparruan, publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzari esker, sektore horri ingurumen-hobekuntzan laguntzeko hainbat tresna sortu dira.

Horien artean bereziki nabarmentzen dira honako hauek:

- Arautegi-aurreko ikerketak
- Parte-hartzea Europako ikerketa-proiektuetan
- Frogapen teknologikorako proiektuak
- Lege-xedapenak
- Erabileraren arau teknikoak
- Erosketa publiko berdearen irizpideak eta eskuliburuak
- Legeria betetzen laguntzeko eskuliburuak eta gidak
- Materialak erabiltzeko gida teknikoak
- Obrako jardunbide onerako gidak
- Laguntza teknikoak loturiko eragileei.

Ahaleginak eta egindako lorpenak gorabehera, obran txertaturiko material birziklatua ez da nahikoa. Upcycling bidez material bilakatu daitezkeen hondakinak (EAEn sorturikoak) esanguratsuak dira. 2016an eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen 1.200.000 tona baino gehiago eta altzairu fabriketako zepen 800.000 tona baino gehiago sortu ziren.

Dokumentu honetan lanen bilduma bat aurkeztu da. Lan horietan honelako hondakinak erabili dira lehengai gisa eta, horrela, egi bihurtu da ekonomia zirkularraren kontzeptua.